


Euskal AEko BPGak % 3,0ko urte arteko hazkundera izan du 2016ko hirugarren hiruhilekoan

Hiruhileko arteko aldakuntza-tasa % 0,6ra iritsi da

Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG) 2016ko hirugarren hiruhilekoan % 3,0ko urte arteko hazkundera izan du, urtaroko eta egutegiko ondorioak kendu ostean, betiere EUSTATEk prestatutako aurrerapen-datuen arabera. Aurreko hiruhilekoarekiko, aldiz, hiruhileko arteko aldakuntza-tasa % 0,6koa izan da.

Euskal AEko BPGren aldakuntza-tasak. (%)
Urtaroen eta jaiegunen eraginetatik zuzendua



Eskaintzaren arloan, zerbitzu-sektorearen bilakaera positiboan, batik bat, eta industriaren hazkunde erritmoari eustean oinarritu da 2016ko hirugarren hiruhileko urte arteko hazkundera.

Enpleguak, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, % 1,8ko urte arteko hazkundera izan du 2016ko hirugarren hiruhileko honetan. Hiruhileko arteko hazkundera, berriz, % 0,2koa izan da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62
Euskal AEko hiruhileroko kontuak. Aurrerapena. Prentsa-ohar gehiago
Euskal AEko hiruhileroko kontuak. Aurrerapena. Datu-bankua